

Dena erlatiboa bai, baina ez dena berdin

• JOXE AZURMENDI •

(FILOSOFOA)

Orduan dena berdin al da?, esaten da. Estreina, nik uste, argitu beharra dago, hori galdetzen denean, zinez galdera bat egiten den ala protesta hutsa, ezintzen duguna ezin dugula onartu.

Eman dezagun, galdera dela: alegia, berdin al da nazi ala antinazi izan; edo, okerrago, nazi borroera izan ala nazien biktima? Monogamia ala poligamia, ablazioa, emakumeek kanpoan beloa eramateko obligazio/debeku/libertatea, dena berdin al da? Nik beste honela esango nuke: dena da humanoa.

1. Eman dezagun, dena berdin dela. Zer gertatzen da? Berdin da egia esan ala gezurra; lan egin ala lapurtu; elkar joka bizi ala adiskidetsuki; justuak urkatu ala saritu; gurasoek haurrak zaindu ala hiltzen utzi, ala haurrak jan, inoren etxeari su eman... Alegia, elkarbizitza ezinezkoa da! Hau da, ezinezkoa da gizadiaren iraupen fisikoa bera. Postura hori ez da razionalki posible. Gertakari gisa ere ez dago, dena berdin zaion gizakirik (ezta organismo bizidunirik ere). Beraz, dena erlatiboa ez da dena berdin.

2. Orduan, gizakion iraupena eta elkarbizitza on batek razionalki nolakoa izan behar duen, hasten gara pentsatzen. Eta esaten dugu: «persona oro helburu kontsideratuko da, ez helbide». Hau da: gizarte orokorrak —*Estatuak*— eta gutako bakoitzak, ukiezin eta sakratutzat ezagutu behar du persona. Ideia edo ideal bat da. Hau da gaur mendebalean filosofia sozial arrunta. Alegia, arrazoiaketa honetan: a) suposatzen edo a priori erabakitzen da, elkarrekin bizi nahi dugula, ez gaituztela behartu, eta nahi komun hori dela gure elkarbizitzaren oinarria; b) suposatu/erabaki da, elkar bizitzaren ordena hori denok *razionala* nahi dugula, ez institutiboa-edo, guztien guztiekin gerrazkoa; ezta ere Erregimen Zaharreko tradizionala-edo, etc., baizik *moderno*a; c) printzipio edo oinarri batzuk konkretatzen ditugu,

geuri razionalenak iruditzen zaizkigunak, elkarbizitza eta iraupena bideratzeari begira: gizaki ororen berdintasuna, etab.; eta, d) gure moraltasun fundamentala edo etika den oinarri (guk hautatu eta erabaki) honen gainean, orain antolaera politiko

konkretu eta legegintza konplexu aldagarriagoa eraikiko dugu. Hau eusten diena, aurreko fundamenteu haiek dira, noski; eta haiei kontraesaten dien neurrian, autoezabatu egiten da beren legitimitazioa.

3. Gertatzen dena da (esandako hori guztia, ez bakarrik ez da historikoa, eskandalosoki antihistorikoa baizik), abiapuntu absoluturik ez dagoela. Gizakia-*ren* kontzeptu jada moralen batetik hasten gara beti interpretazio moralak erakitzen. H. d., ez gara, aurrena gizakia-*kiak*, eta gero moralak. Zer da gizakia? Erantzun ezberdinen arabera, etika diferenteak egongo dira. Adibidez, honelakotsu bat: *gizabanakoa* gaur jaio eta bihar hiltzen den, inportantzia oso txiki-*ko* zer bait da. Garrantzizkoa gizadia eta bere zibilizazioa da. Horregatik, garrantzitsuak zibilizazioa jasotzen duten herriak edo kulturak (hizkuntzak, etc.) dira; *persona* mailan, zientifikoak, artistak, etab. (ez, ordea, gaixoak, zaharrak; edo hizkuntza kaskarragoak). Zibilizazioaren banderadunok zilegi duté Asia edo Afrikan koloniak okupatzea, hangolur eta lurrazpiak ustiatzea, jendeak zibilizatzea (frantsesa edo ingelesa inposatu, adibidez). Etab. Razionalitate edo etika hau European arrunta izan da oraintsu arte; eta ezin esan daiteke, bere handitasuna ez duela. Behar bada arruntena bera da oraintxe ere, diskur-

tsu humanitarioago baten mantupean.

Abiapuntu beretsutik arras bestelako etika bat ere asma genezakeen. Gizakia gaur jaio eta bihar hiltzen da: ez du me-rezi mundua irabazi nahita ibiltzea, etab., etika budista edo *munduaren uko*



Morala ez da eguraldiaren arabera jantzi edo erantzi egin genezakeen kapusai bat. Morala, naizena da, nire identitatea bera

batean bukatuz. Etika diferenteak daude eta kultura diferenteak daude. Etika batek eduki lezake helmuga bezala munduaren ukoa, edo zibilizazioaren garaipena, edo arrakasta indibiduala, edo sozialtasun orekatua... Denak dira etika onak.

4. Bakarrik, a): denak ezin izan daitezke nireak. Erabaki behar dut, zein den nirea. Izan ere,

gizakia ez da ente abstraktu bat: leku, garai, baldintza batzuetan existitzen da. Alegia, printzipioz moral denak berdin erlatiboak dira, baina *niretzat* ez dira ematen berdin erlatibo bezala. Ni historia batean nago eta beste batean ez nago. Ez naiz, adibidez, mendietako kurdu bat. Ez naiz Pekingo txino bat. Ergelkeria nuke, neure burua Sokrates baino moralagoa uste izatea; baina ergelagoa, haren morala gaur eta hemen niretzat posibilitate erreel bat dela, uste izatea. Niretzat posibleen artean ere, hautatu egin behar dut eta izan. Morala ez da eguraldiaren arabera jantzi edo erantzi egin genezakeen kapusai bat. Morala, naizena da, nire identitatea bera (horren aspektu morala, hain zuzen). Baldintza batean arabera eta neure askatasunaren arabera nik neuk osaturiko, naizen hauxe. Propioki morala ez da eduki egiten, izan egiten da.

Gero, b): ideal eta ideiak edo morala ona izateak ez du gure ekintzak onak izatea ziurtatzen. Arrazoi askogatik. Per-tsonak ez direlako morala soil izaten,

zerbait konplexuago baizik. Baina moralak berak ere aski konplexuak izaten direlako, dena onak ez izateko. Denak erlatiboak direlako, eta moral denak onak direlako, orain ez dezagun moral baten ontasuna absolutizatuz! Erlatiboki onak dira... Hau da, edozein sistema moraletan, balioen artean diferentziak eta konfliktuak daude: justizia eta errukiaren artean, askatasuna eta berdintasunaren artean, etab., askotan ondorio odoltsuak eragin izateraino gizontxoaren historian. Moral denak onak izan arren, haien ondorio denak ez dira onak izaten. Eta emaitzen arabera epaituak izan behar dute. Horregatik:

5. Moralarentzat erabakiorra da historia. Esperientzia. Morala elkarbizitzaren oinarria eta arautegia bada, elkarbizitze-ko lan eta jakintza hori, beti ari eta inoiz amaitzen ez dena da. Morala beti ikasten, beti eraikitzen, eraikuntza birrerakitzen, ihardun beharra daukagu. Beraz, kritikoak izan beharra daukagu moralarekin, geure nahiz besteenarekin. Gaur egun batez ere, moral (kultura) denak denekin solasean eta beren esperientzien eztabaidan bizitzea da gure moral posible bakarra.

Alde horretatik, beren kontzientziaren moduan eta mailan Inkisizioan ibili ziren kristauak, edo naziak izan ziren naziak baino, agian gure persona hobeak izan gabe, *egoera hobean* gaude, moralki epaitzeko, haien planteamenduen fruituak ikusi ahal izan baititugu, eta alternatiba hobeak irudika genitzaie jada. Horrela, printzipioak eta ondorio historikoak kontrastatuz, posible dut naziak, adibidez, gaitzestea: h. d., halako ondorioak ekarri dituzten printzipioak salatazea. Ez arrazoi absoluturen baten ikuspuntutik, esperientziaren ikuspuntutik baizik. (Esperientzia kriterio batzuekin irakurrita, beti ere). Historiatik ikasiz, elkarrengandik ikasiz, gaur gaizki eta bihar piska bat hobeto eginez, ikasten baitu gizadiak morala.